Antsoain BIM Ansoáin

Antsoaingo Udalaren informazio aldizkaria

Boletín de información Municipal de Ansoáin

2021 Abendua - Diciembre • nº 26. alea

## HITZARMEN BERRIA NASUVINSAREKIN ANTSOAINGO ETXEBIZITZA-ERAIKINEN BIRGAITZE ENERGETIKOA EGITEN JARRAITZEKO



Antsoaingo Udalaren osoko bilkurak hitzarmen berri bat onetsi du, orain ELENA-PRIMAVERA izenekoa. Hitzarmenak esparru berritu bat ezarri nahi du, administrazioen arteko lankidetza ahalik eta handiena izan dadin. Kasu honetan, Nafarroako Gobernuko Nasuvinsa etxebizitza eta hirigintzarako sozietate publikoaren eta Antsoaingo Udalaren artean, gure udalerriko etxebizitzak energiaren aldetik berroneratzeko proiektuak bultzatzen eta laguntzen jarraitzeko.

Hitzarmenak hainbat helburu ditu, hala nola:

- Etxebizitza-eraikinen birgaitze energetikorako jarduketa koordinatuak abian jartzen laguntzea.
- Instalazio termikoak hobetzea, eraginkortasun handiko instalazio alternatiboak sustatuz.
- Eraikinetan energia berriztagarriak sartzea.
- Erabilera publikoko espazioak hobetu eta egokitzea.
- Nasuvinsak parte hartzeko eta laguntza teknikoko zerbitzua emateko baldintzak arautzea, bai eta Antsoaingo Udalak parte hartzeko baldintzak ere.

### JARDUKETA ESPARRUAK

Hitzarmena, zehazki, honela identifikatuta dauden eremuetara mugatuko da:

- 1. eremua: Lerín – Artzaintsa Jainkotiarra – Nafarroako Foruak.
- 2. eremua: Mendikale.
- 3. eremua: Dorreak (Lapurbide 3).
- 4. eremua: Arturo Campion – Harrobietako zeharkalea – Nafarroa – Lapurbide.
- 5. eremua: Euskalherria plaza 2. Nasuvinsako eraikina.
- 6. eremua: Ostoki.
- 7. eremua: Noain anaiak 1-3.

Jarraitzen du...

## NUEVO CONVENIO CON NASUVINSA PARA CONTINUAR CON LA REHABILITACIÓN ENERGÉTICA DE EDIFICIOS DE VIVIENDAS DE ANSOÁIN

El pleno del Ayuntamiento de Ansoáin ha dado luz verde a un nuevo convenio, llamado ahora ELENA-PRIMAVERA, cuyo objeto es establecer un marco renovado de máxima colaboración interadministrativa, en este caso entre la sociedad pública de vivienda y urbanismo del Gobierno de Navarra (Nasuvinsa) y el Ayuntamiento de Ansoáin, para seguir posibilitando desarrollar labores de dinamización y acompañamiento en los proyectos de regeneración energética del parque residencial de nuestro municipio.

Dicho convenio tiene varias finalidades, como son:

- Apoyar la puesta en marcha de actuaciones coordinadas para la rehabilitación energética de las edificaciones residenciales.
- La mejora de las instalaciones térmicas, fomentando las instalaciones alternativas de alta eficiencia.
- La incorporación de energías renovables en los edificios.
- La mejora y adecuación de los espacios de uso público.
- Regular las condiciones de participación y prestación del Servicio de Asistencia Técnica por parte de Nasuvinsa y las condiciones de participación del Ayuntamiento de Ansoáin.

### ÁMBITOS DE ACTUACIÓN

El convenio se va a circunscribir en concreto a las zonas identificadas como:

- Ámbito 1: Lerín – Divina Pastora – Fueros de Navarra.
- Ámbito 2: Mendikale.
- Ámbito 3: Las Torres (Lapurbide 3).
- Ámbito 4: Arturo Campión – Tr.ª Canteras – Navarra – Lapurbide.
- Ámbito 5: Plaza Euskalherria nº 2. Edificio de Nasuvinsa.
- Ámbito 6: Ostoki.
- Ámbito 7: Hermanos Noain 1-3.

Continua....

**Argitaratzailea:** Antsoaingo udala. **Erredakzio Kontseilua:** Silvia Miranda, Arantxa Gambra, Patricia Abad, Jabyer Andueza, Mª Aranzazu Arias. **Egilea:** Imagen Gráfica. **Ale kopurua:** 4700 ale. **Doako banaketa.** **Edita:** Ayuntamiento de Ansoáin. **Consejo de Redacción:** Silvia Miranda, Arantxa Gambra, Patricia Abad, Jabyer Andueza, Mª Aranzazu Arias. **Realiza:** Imagen Gráfica. Tirada: 4700 ejemplares. **Difusión gratuita.**

(Hurrengo aldizkaria: 2021ko otsaila – Próximo BIM: febrero 2022)

Horrek esan nahi du, guztira, **72 ataritan eta 1.123 etxebizitzatan** jardun daitekeela, eta horiek herritarren interesaren arabera planifikatu eta programatu ahal izanen direla.

Hitzarmenak bizilagunen interes-adierazpenaren eredu mota bat erantsi du. Hau da, bizilagunek esanen dute zer esparrutara bideratu lehentasunez baliabide tekniko eta ekonomikoak, haietan eraginkortasun energetikoko lanak egiteko interes handiagoa dutelako, betiere toki-administrazioarentzat lehentasunezkoak diren esparruen artean.

## HITZARMENAREN INDARRALDIA

Onetsitako hitzarmena **2024ko apirilaren 30era** arte egonen da indarrean, ELENA-PRIMAVERA proiektuaren amaiera-datarekin bat, baina beste urtebetez luzatu ahal izanen da, aldeak ados jarri ondoren, baldin eta ELENA-PRIMAVERA proiektua ere luzatzen bada.

## UDALAREN KONPROMISOAK

Hitzarmena sinatzean, Antsoaingo Udalak konpromisoa hartuko du aurrekontu-partida izendun bat gaitzeko, izen honekin: HITZARMENA NASUVINSAREKIN ELENA-PRIMAVERA PROIEKTUA ABIAN JARTZEKO 2022., 2023. eta 2024. urteetarako, hartan hartutako betebehar ekonomikoak finantzatzeko, hala nola:

- Birgaitzeko laguntzen udal-ordenantza mantentzea, egoera ekonomiko txarrean dauden bizilagunek birgaitze-obren kostuei (inguratzaile termikoei, adibidez) egiten dieten ekarpena murrizteko, jabekideen elkarteetan erabakiak hartzea eta/edo familia bakarreko etxebizitzetan jarduketak egitea errazte aldera.
- Aukera eta erraztasunak ematea, proiektuko eremuen barnean diren erabilera publikoko espazio publikoak eta espazio pribatuak egokitzeko eta berrurbanizatzeko.

Bere garaian Sustainivility Proiektuaren izenpean sinatu zen proiektuaren jarraipena da. Proiektu horren bidez, Lerin, Nafarroako Foruak, Artzaintsa Jainkotiarra eta beste eremu batzuetako komunitateekin batera, bizilagunen bileren bidez, esku hartu da. Bilera horietatik, hainbat esku hartze plan eta birgaitze-proiektu sortu dira, etorkizun hurbilean abian jarriko direnak, eta Lapurbide kalean egiten ari direnei gehituko zaizkienak, bizilagunen ekimenari esker.

Esto implica un ámbito total de posible actuación de **72 portales y 1.123 viviendas**, que podrán ser planificados y programados en base al interés vecinal manifestado.

El convenio adjunta un modelo tipo de declaración de interés por parte del vecindario, para priorizar la dedicación de recursos técnicos y económicos a aquellos ámbitos que, siendo prioritarios para la administración local, los propietarios y propietarias muestren una mayor predisposición a acometer actuaciones de eficiencia energética.

## PLAZO DE VIGENCIA DEL CONVENIO

El Convenio aprobado tendrá vigencia hasta el **30 de abril de 2024**, coincidiendo con la fecha de finalización del proyecto ELENA-PRIMAVERA, pero podrá ser prorrogado por un periodo de 1 año adicional, previo acuerdo de las partes, en el caso de que el proyecto ELENA-PRIMAVERA sea también prorrogado.

## COMPROMISOS DEL AYUNTAMIENTO

A la firma del convenio, el Ayuntamiento de Ansoáin se compromete a habilitar una partida presupuestaria nominativa denominada CONVENIO CON NASUVINSA PARA LA PUESTA EN MARCHA DEL PROYECTO ELENA-PRIMAVERA para los años 2022, 2023 y 2024, para dotar de financiación a las obligaciones económicas contraídas en el mismo, como son:

- Mantener la ordenanza municipal de ayudas para la rehabilitación, dirigida a reducir la aportación a los costes de las obras de rehabilitación, tales como las envolventes térmicas, de los vecinos y vecinas que se encuentran en una situación de precariedad económica, con el objetivo de facilitar la adopción de acuerdos en el seno de las comunidades de propietarios y propietarias y/o actuaciones en viviendas unifamiliares.
- Posibilitar y favorecer la adecuación y reurbanización de los espacios públicos y los espacios privados de uso público, comprendidos dentro de los ámbitos del proyecto.

Este proyecto es continuidad del que ya se firmó en su día bajo el nombre de Proyecto Sustainivility, a través del cual se viene interviniendo e interactuando con las comunidades de zonas como Lerín, Fueros de Navarra y Divina Pastora mediante reuniones vecinales de las que han surgido planes de intervención y diferentes proyectos de rehabilitación que se pondrán en marcha en un futuro cercano y que se sumarán a los que ya están realizándose en calle Lapurbide gracias a la propia iniciativa vecinal.

Argitaratzailea: Antsoaingo Udala · Edita: Ayuntamiento de Ansoáin · DL/LG: NA 942-2016



## ANTSOAINGO UDALEKO OSOKO BILKURAK ZERGA-TASAK, TASAK ETA PREZIO PUBLIKOAK IZOZTU DITU 2022RAKO

Antsoaingo Udaleko osoko bilkurak, 2022an egungo zerga-tasa, tasa eta prezio publiko berberak mantentzea erabaki du dira. Hau da, datorren urtean, ez zaie inolako igoerarik aplikatuko ez kontribuzioari, ez tasa eta prezio publikoei, hala nola kirol-instalazioei, igerilekuei, kirol-jarduerei, e.a. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari dagokionez (zirkulazio-zerga esaten zaio), Udalek biltzen dute, baina Nafarroako Gobernuak arautzen du; beraz, udalok aplikatu egin beharko dugu Foru Gobernuak heldu den urterako zehazten duena.

## EL AYUNTAMIENTO DE ANSOÁIN APRUEBA CONGELAR SUS TIPOS IMPOSITIVOS, TASAS Y PRECIOS PÚBLICOS PARA 2022

El Ayuntamiento de Ansoáin ha decidido mantener para 2022 los mismos tipos impositivos, tasas y precios públicos actuales, de tal manera que no se aplicará subida alguna en 2022 a impuestos como el de la contribución o a tasas y precios públicos como los de abonos a instalaciones deportivas, piscinas, actividades deportivas, etc. En cuanto al impuesto sobre vehículos de tracción mecánica, más conocido como impuesto de circulación, aunque son los ayuntamientos quienes lo recaudan, es el Gobierno de Navarra quien lo regula, por lo que los ayuntamientos deberemos aplicar lo que el ejecutivo foral determine para el próximo año.



## ANTSOAINGO OSTALARITZAK AURTEN ERE EZ DU TERRAZEN TASA ORDAINDUKO

Bigarren urtez jarraian, Antsoaingo Udalak erabakirik, gure herriko ostalaritzak ez du ordainduko lurzorua terrazen bidez okupatzeari dagokion tasa, hau da, 2021eko tasa. Udalak, beraz, tasa hori ordaintzetik salbuetsi du ostalaritza. Horrela, Antsoaingo Udalak laguntza ematen jarraitu nahi du pandemiak erdi-erditik jo duen sektorea suspertzeko. Tabernek, izan ere, osasun agintariek ezarritako baldintzen pean jardun behar izan dute. Ordainketa horretatik salbuesteko, osoko bilkurak aldaketa egin dio 10. ordenantza fiskalari, 2020an bezala. Zehazki, xedapen iragankor baten bidez, tasa hori ordaindu beharra utzi da bertan behera; zehazki, aurtengo urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarte.

## NUEVA EXENCIÓN DEL PAGO DE LA TASA DE TERRAZAS PARA LA HOSTELERÍA ANTSOAINDARRA

Por segundo año consecutivo, el Ayuntamiento de Ansoáin ha aprobado la exención a la hostelería de nuestro municipio del pago de la tasa de ocupación del suelo por terrazas, en este caso, la correspondiente a este 2021. Con ello, el consistorio antsoaindarra pretende seguir contribuyendo desde el ámbito municipal a la recuperación de un sector drásticamente afectado por la pandemia y las condiciones que desde las autoridades sanitarias se han tenido que imponer para su funcionamiento. La exención de dicho pago se ha materializado mediante la aprobación en pleno de una modificación de la ordenanza fiscal número 10, que al igual que en 2020, ha recogido una disposición transitoria por la que se suspende la obligación de pago de la tasa desde el 1 de enero hasta el 31 de diciembre de este año.


AXA
Eugenia Landa Pérez
Acércate a conocernos



Todo tipo de seguros e inversiones
Plaza Berria, 8 bajo | Ansoain Tel. 948 07 32 02
Puedes enviar mensaje 669 239 362 | E-mail: eugenia.landa@agencia.axa-seguros.es
Felices Fiestas ¡ Urte berri on !

## BUKATU DA EZKABA MENDIKO SARBIDEA HOBETZEKO LANA

Azaro hasieran bukatu da Ezkaba mendiko sarbidea hobetzeko lana Artzaintsa Jainkotiarra kalearen ondoko zaldainetik abiatuta. Azken kostua 18.523.560 eurokoa izan da. Jarduera hau, Antsoaingo Memoriaren Ibilbideen proiektuan kokatzen da. Ibilbide hauei buruz aldizkari honetan bertan aurkituko duzun 2030 Agendaren artikuluan hitz egiten da.



## TERMINADA LA OBRA PARA MEJORAR EL ACCESO AL MONTE EZKABA

A primeros de noviembre finalizó la obra realizada para mejorar el acceso al monte Ezkaba desde la pasarela situada junto a la calle Divina Pastora, con un coste final de 18.523.560 euros. Dicha actuación se enmarca además en la creación de los Itinerarios de la Memoria de Ansoáin, de los que se habla en el artículo de la Agenda 2030 que encontraras en este mismo boletín.



## ONCEK ANTSOAINEN OSPATU ZUEN BERE EGUNA

Joan den urriaren 16an, ONCEren Nafarroako ordezkaritzak erakundearen eguna ospatu zuen gure herrian. Egun horretarako antolatu ziren ekitaldien artean, antzokikoa nabarmendu behar da. Honatx parte-hartzaileak: Carmen Maeztu, Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilaria; Ander oroz, Antsoaingo alkatea; Mariluz Sanz, CERMINeko lehendakaria (Desgaitasuna duten Pertsonen Ordezkarien Nafarroako Batzordea); Alejandro Oñoro, Ilunion-eko kontseilari ordezkaria eta ONCEko Kontseilu Nagusiko kontseilaria; Valentín Fortún, ONCEren Nafarroako lurralde-ordezkaria eta Mª Pilar Herrero, ONCEren Nafarroako Lurralde Kontseiluko lehendakaria. Ekitaldian, erakundeko langile erretiratu eta ezinduei omenaldia egin zitzaien eta "Los Jesuses and More" taldeak kontzertua eman zuen. Ondoren, anaitasunezko bazkaria egin zen ONCEren Eguna ospatzeko. 2020an egitekoa zen, baina pandemiaren ondorioz, bertan behera utzi behar izan zen. ONCEk Antsoainen aldeko apustuari eutsi dio bere urteroko jaia ospatzeko eta, zorionez, 2021ean ospatu ahal izan da.

## LA ONCE CELEBRÓ SU DÍA EN ANSOÁIN

El pasado 16 de octubre la delegación navarra de la ONCE celebró el día de la institución en nuestra localidad. Entre otros eventos organizados para ese día, se celebró en el teatro un acto en el que participaron Carmen Maeztu, Consejera de Derechos Sociales del Gobierno de Navarra, Ander Oroz, Alcalde de Ansoáin, Mariluz Sanz, Presidenta del CERMIN (Comité de Representantes de Personas con Discapacidad de Navarra), Alejandro Oñoro, Consejero Delegado de ILUNION y Consejero del Consejo General de ONCE, Valentín Fortún, Delegado Territorial de la ONCE en Navarra y Mª Pilar Herrero, Presidenta del Consejo Territorial de la ONCE en Navarra. En el citado acto se realizó un homenaje al personal jubilado e incapacitado de la Institución y un concierto a cargo del grupo "Los Jesuses and More". Posteriormente, tuvo lugar una comida de hermandad organizada también en el marco de celebración del Día de la ONCE, que estaba previsto realizarlo en 2020 y tuvo que ser suspendido a causa de la pandemia. La ONCE ha continuado apostando por Ansoáin para la celebración de su fiesta anual y felizmente ha podido celebrarse en este 2021.

## OLENTZERO ETA KABALGADA

Berri on bat dugu. Aurten gure kaleetan Olentzero eta Errege Magoak agurtzeko aukera izango dugu. Gogorarazten dizuegu, jende asko biltzen den ekitaldietan oraindik izan behar dugun arretagatik, ibilbidean zehar maskara erabiltzea gomendatzen dela.





## OLENTZERO Y CABALGATA

Tenemos una buena noticia. Este año podremos saludar al Olentzero y a los Reyes Magos en nuestras calles. Os recordamos que, por la precaución que todavía debemos tener en actos en los que se reúne mucha gente, se recomienda el uso de la mascarilla durante el recorrido.

## MEMORIAREN IBILBIDEAK



Antsoaingo Udalak memoria historikoarekin duen konpromisoa izan da “Memoriaren Ibilbideak” ekimenaren bultzagarria, betiere Txinparta Elkartearekin eta Amaia Kowasch Velascorekin elkarlanean. Ekimenak oroitarazi eta omendu nahi du emakumeek gerraondoan izaniko eginkizuna eta, aunitzetan gertatu den bezala, nahita ezkutatu dena urte sail luze-luzean.



Bi emakume taldez ari gara. “Hamahiru Larrosak” 1939an fusilatu zituzten, gazteak zirelako eta ezkerreko alderdiekin lotura zutelako, militar frankista baten aurka izaniko atentatuaren mendeku gisa. Atentatua, hain zuzen, neskak espetxean zeudela gertatu zen. 17 eta 29 urte artekoak ziren, ia denak adingabekoak, garai hartan 21 urtetan baitzegoen ezarria adin nagusitasuna legez. Torturapean salatuak, epaitu eta bi egunera exekutatu zituzten, espetxeko zuzendariak haien indultu eskabideak bideratzeari uko eginda. Haien omenez, lorategi-monumentu bat paratu da “Hamahiru Larrosen” omenez, haien izena ere izanen duen Ezkaba kaleko parkean.




Bestalde, gogoan izan nahi dugu, halaber, Alfonso XII. gotorlekuko presoei laguntzeko 1934tik 1945era antolatu zen emakume taldea. Gogoratuko dugu presoak estatu osokoak zirela, hau da, oso gutxik zuten hurbilean laguntzaren bat izateko zoria. Neke gorritan, emakumeek presoen eta senitartekoen arteko lotura-lana egiten zuten, espetxera batez ere janaria, arropa eta sendagaiak eramanda. Janaria arropen artean ezkutaturik, aunitzetan elur edo euripean igo behar izaten zuten, haiek berek bideak eginda; bideak trapu eta egunkariekin markatu behar izaten zituzten, ez galtzeko. Ekimenaren baitan, eta emakumeek egiten zuten ibilbidea sinbolizatzeko, mendira joateko bidea garbitu da, iparraldeko ingurabideko zaldainetik abiatuta (Artzaintsa Jainkotiarra kalearen parean).

Horrela, Hamahiru Larrosen parketik Artikako mugaraino, Ezkaba mendiko kaskora garamatzan bideari jarraikiz, **MEMORIAREN IBILBIDE** bat egin dezakegu, QR kodeen bidez (1-Hamahiru Larrosak; 2-Mendiko igoera; 3-Hilerria; 4-Eliza eta 5-Artikako muga). Ahaztu behar ez diren gure historia-atal jakingarriak kontatuko dizkigute dizkigute.

## ITINERARIOS DE LA MEMORIA

Desde el compromiso del Ayuntamiento de Ansoáin con la memoria histórica y con la colaboración de la asociación Txinparta y Amaia Kowasch Velasco, nace el proyecto “Itinerarios de la Memoria”. Un proyecto que trata de recordar y homenajear el papel que tuvieron mujeres durante la posguerra y que como muchas veces sucede, fue invisibilizado de forma intencionada durante décadas.



En concreto hablamos de dos grupos de mujeres. “Las Trece Rosas”, llamadas así por su juventud y vinculación a partidos de izquierda, fueron fusiladas en 1939 en venganza por el atentado a un militar franquista ocurrido cuando ellas ya estaban en la cárcel. Tenían entre 17 y 29 años, siendo casi todas menores de edad pues entonces se alcanzaba la mayoría legal a los 21 años. Delatadas bajo tortura, fueron ejecutadas solo dos días después de su juicio sin que la directora de la cárcel quisiera tramitar sus solicitudes de indulto. En su homenaje, se ha instalado un jardín-monumento a “Las Trece Rosas” en el parque de la calle Ezkaba que también llevará su nombre.

Por otro lado, también queremos recordar al grupo de mujeres que se organizó para asistir a los presos del fuerte Alfonso XII entre los años 1934 y 1945. Debemos recordar que los presos eran de toda la geografía del estado, con lo que muy pocos tenían la suerte de tener algún apoyo cerca. Sufriendo muchísimas penalidades, servían de enlace entre los presos y sus familias haciéndoles llegar sobre todo comida, ropa y medicinas. Con la comida escondida entre las ropas, muchas veces debían subir con nieve o lluvia, improvisando caminos que debían marcar con trapos o periódicos para no perderse. Dentro de este proyecto y para simbolizar el camino que recorrían estas mujeres, se ha restaurado el acceso al monte desde la pasarela de la Ronda Norte (a la altura de la calle Divina Pastora).

Así, desde el Parque de las Trece Rosas hasta la muga con Artika, siguiendo el camino que nos lleva a la cima del monte Ezkaba, podemos hacer un **ITINERARIO DE LA MEMORIA** jalonado de códigos QR (1-Trece Rosas; 2-Acceso al Monte; 3-Cementerio; 4-Iglesia y 5-muga con Artika), que nos revelarán fragmentos de nuestra historia que no deben olvidarse.

## MUSIKA BAINO ASKOZ GEHIAGO GARA

Gogotik ikasi dugu lehen hiruhileko honetan, kontzertuak ere ugari, musika inoiz baino garrantzitsuagoa baita normaltasun berri honetan. Eskerrak eman nahi dizkiegu ikasle eta familia guztiei musika-hezkuntzan konfiantza izateagatik, garapen kognitibo, emozional eta pertsonalaren funtsezko zatia baita. Asko gustatzen zaigu entzunaldi bakoitzean zuen laguntza ikustea eta urtero elkarrekin hazten garela jakitea.

Espero dugu 2022a erritmoz eta melodiaz beteta etortzea eta musika-talde handi hau zabaltzen jarraitzea!




## SOMOS MUCHO MÁS QUE MÚSICA

¡Cerramos un primer trimestre de mucho aprendizaje, conciertos y una nueva normalidad, en la que la música es algo más importante que nunca. Gracias a todo el alumnado y familias por confiar en la educación musical como una parte fundamental del desarrollo cognitivo, emocional y personal. Nos encanta veros apoyando cada audición y saber que crecemos juntos y juntas cada año.

¡Esperamos que el 2022 venga cargado de ritmo y melodías y que sigamos ampliando este gran equipo musical!



## HARROBI GAZTELEKUA

Kaixo Antsoain!

Ezer baino lehen, Halloween-eko Beldurraren pasa-lekua posible egin zuten lagun guztiei eskerrak emango dizkiegu, eta nola ez, beti lan egiteko prest dauden gure Gazte Handiei! Zorionak denoi egindako lanagatik! Izugarria izan zen!

Dagoeneko gure programak hasi dira; ostiral komunitarioak eta larunbatetako "Gure kaleak" Antsoaingo gazteei zuzendutako ekintzaz beteta egon dira.

Bestetik, Scape Room ekintza eta Pamela Palencianoren obraren bitartez genero rolen inguruko gaiak eta haien eragina gizartean landu ditugu.

Gainera, Azaroaren 25a aprobetxatuz, emakumeen aurkako indarkeria ere landu dugu.

Azkenik, baina ez horregatik garrantzi gutxiagokoa, DENBORALDIKO SUKALDARITZA TAILERRARI hasiera eman diogu!

## CASA DE LA JUVENTUD HARROBI

¡Hola Ansoáin!

Antes de nada, nos gustaría dar las gracias a todas las personas que hicieron posible el Túnel del terror de Halloween, y cómo no, a Gaztehandi, ¡Siempre dispuestas a trabajar! ¡Fue un éxito!

Nuestros programas ya han empezado a rodar y los viernes comunitarios y sábados de "Gure kaleak" están llenos de actividades en las que ha participado la juventud de Ansoáin.

Por otro lado, durante el mes de noviembre hemos trabajado la temática de los roles de género y su impacto en la sociedad a través de actividades como el Scape Room y la obra de Pamela Palenciano "No solo duelen los golpes". También trabajamos la violencia contra las mujeres aprovechando el día del 25N.

Por último, pero no menos importante, este mes hemos comenzado con el ¡TALLER DE COCINA DE TEMPORADA!

HARROBI
Antsoaingo Gaztelekua
Casa de la Juventud de Ansoain



## EUSKARA ZERBITZUA

Gabonetako oporretan aukera emanen diegu gustura eta pozik ibiltzeko euskaraz jolasean; izan ere, garrantzitsua da aukera hori lagunartean ere izatea.

**Izen-ematea, azaroaren 29ean, 30ean eta abenduaren 1ean eta 2an**. Data horietan jasotako inskripzioekin eginen dira aurreikuspen guztiak; beraz, izenak epe barruan eman behar dira. Ondoren, Euskara Zerbitzuak plaza duzuela baieztatu ostean, matrikula egiteko jarraibideak emanen dizkizue (35€, erroldatuek; 40€, ez erroldatuek ). Egoera aldatu eta jarduera bertan behera utzi beharko balitz osasun-egoeraren ondorioz, Udalak dirua itzuliko luke. Plaza mugatuak.

**Izena emateko, legezko arduradunak dindaia.eus webgunean sartu behar zarete.**




## SERVICIO DE EUSKERA

Durante las vacaciones de Navidad les ofreceremos la posibilidad de que disfruten jugando en euskera, ya que es importante que también tengan esa oportunidad con sus amistades.

**Inscripciones 29, 30 noviembre y 1, 2 diciembre**. Todas las previsiones se realizarán en función de las inscripciones recibidas en esa fecha, por lo que es necesario hacerlo en plazo. A continuación, una vez confirmada la plaza por el Servicio de Euskera, se facilitarán las instrucciones para realizar la matrícula (35€ empadronados, empadronadas, 40€ no empadronados, empadronadas). El Ayuntamiento procederá a la devolución del importe si debido a un cambio en la situación sanitaria se anulara la actividad. Plazas limitadas.

**Para inscribirse, los y las responsables legales deberán entrar en la página web dindaia.eus**



## GURE ZIRKUA ANTSOAINEN

Zirkua etorri da! Munduko ikuskizunik handiena gure herrian!

Urrian zirkoa beste modu batez ezagutzeko aukera izan genuen. Izugarri polita da harmailatik ikuskizunaz gozatzea. Baina, ze ote dago magia horren guztiaren atzean? Ezkaba ikastetxeko ikasleok misterio hori argitzeko aukera izan dugu. Bi egunetan zehar zirkoa eta bertako jendea eta bizitza nolakoa den ikusi dugu. Benetan eskertzekoa da Gure Zirkuko partaideek eskaini diguten harrera eta tratu ona. Pistatik kanpo duten giro xarmangarria transmititu digute eta liluratuta gelditu gara zirkoko bizitzarekin. Mila esker esperientziagatik. **GORA GURE ZIRKUA!**



## GURE ZIRKUA EN ANSOÁIN

¡Ha llegado el circo! ¡El espectáculo más grande del mundo en nuestro pueblo!

En octubre tuvimos la oportunidad de conocer el circo de otra manera. Es increíblemente bonito disfrutar del espectáculo desde la grada. Pero, ¿qué hay detrás de toda esa magia? El alumnado del colegio Ezkaba hemos tenido la oportunidad de aclarar este misterio. A lo largo de dos días, hemos visto el circo, su gente y su vida. Es de agradecer la buena acogida y trato que nos han dispensado los y las integrantes de “Gure Zirkua”. Nos han transmitido el ambiente encantador que tienen fuera de la pista y nos hemos quedado fascinados y fascinadas por la vida circense. Gracias por la experiencia. **GORA GURE ZIRKUA!**

## BERDINTASUNA – KIROLAK

### IKASTURTE BERRI HONETAN, BURU-BELARRI ARI GARA ANTSOAINGO KIROLA ESPARRU INKLUSIBOAGOA, BIDEZKOAGOA ETA BERDINZALEAGOA IZATEKO

Berdintasun eta Kirol Zerbitzuok elkarrekin lan egin dugu emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna kirol arloan sartzeko. Esparru estrategikoa da, kirolari loturik dauden herritarren ezaugarriak ikusirik eta zenbat jende ari den kontuan harturik.

2019an, diagnostiko bat egin zen emakumeek eta gizonek Antsoaingo kirol esparruan zuten egoera aztertzeko, behin arrakalak eta desberdintasun zehatzak atzemanik, haietan nola esku hartu jakite aldera. Diagnostikoak hainbat hobekuntza proposatu zituen, besteak beste udaleko kirol alorreko monitoreak berdintasunean prestatzea. Horregatik, berdintasunari buruzko gaitasunak diseinatu eta erakutsi zaizkie kirol klubetan entrenatzaile, koordinatzaile eta zuzendari lanetan dabiltzan langileei, tresnak eskuratzeko eta entrenamendu hezkideak egiteko.

Asmoa da gaikuntza hori ikasturte guztien hasieran egitea kirol klub guztietako langile berrientzat, kirola berdinzaleagoa eta ekitatiboagoa izan dadin.

## IGUALDAD – DEPORTES

### PARA ESTE NUEVO CURSO ESCOLAR NOS HEMOS PUESTO LAS PILAS PARA HACER DEL DEPORTE DE ANSOÁIN UN ÁMBITO MÁS INCLUSIVO, JUSTO E IGUALITARIO

Desde los Servicios de Igualdad y Deportes hemos trabajando conjuntamente para incluir la igualdad entre mujeres y hombres en el área de deportes, ámbito estratégico debido a la amplitud y características de la población implicada.

En 2019 se hizo un diagnóstico sobre la situación de las mujeres y hombres en el ámbito deportivo en Ansoáin, para una vez detectadas brechas y desigualdades concretas, poder intervenir sobre ellas. Una de las propuestas de mejora de este diagnóstico fue la formación en materia de igualdad al monitorado del área de deportes municipal. Por ello, se han diseñado e impartido unas capacitaciones sobre igualdad al personal que dirige, coordina y entrena en diferentes clubs deportivos, para adquirir herramientas y poder entrenar de manera coeducativa.

La idea es que esta capacitación se haga al principio de todos los cursos escolares para el personal nuevo de todos los clubs deportivos con el fin de hacer el deporte más igualitario y equitativo.



*Irudian, saioetako bat. Futbol klubeko, Herri Kiroletako, Triatloiko, Saskibaloiko eta Gimnasia erritmiko langileak ageri dira.*

*Una de las sesiones, con personal del Club de fútbol, Herri Kirolak, Triatlón, Baloncesto y Gimnasia Rítmica*

## BERDINTASUN ZERBITZUA

### AHALDUNTZE FEMINISTARAKO ESKOLA

Bi ikastaroek sekulako arrakasta izan dute. Horietako bat DANZAR-ME izan da eta, bestea, SENDABELARRAK ETA PRESTAKIN NATURALAK NEURE BURUA ZAINTZEKO.

Bi ikastaroak urrian eta azaroan eman dira, eta parte-hartze handia izan dute, bai eta balorazio on-onak ere. Horregatik, urtarrilean, beste ikastaro batzuk eskainiko ditugu.









## SERVICIO IGUALDAD

### ESCUELA DE EMPODERAMIENTO FEMINISTA

Tanto el curso DANZAR-ME como PLANTAS MEDICINALES Y PREPARADOS NATURALES PARA CUIDARME han sido todo un éxito.

Estos dos cursos, programados durante octubre y noviembre, han tenido una gran participación y tan buenas valoraciones que volveremos en enero con nuevos cursos.

## BERDINTASUN ZERBITZUA

### AZAROAK 25, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA

A25eko kanpaina dela eta, aurten hainbat jarduera antolatu ditugu, jendea emakumeen aurkako indarkeriaren gainean kontzientziatzeko eta prebentzioa lantzeko, hala nola "No solo duelen los golpes" bakarrizketa Pamela Palencianorekin, berdintasunaren aldeko Escape Room-a Harrobin eta "80 amandre", Dorleta Kortazar ipuin kontalariaren eskutik.

Gainera, "La justicia de las vivas" zinema-zikloaren lehen bi emanaldiak egin dira, baina azken saioa dugu ikusteko: "Thelma y Louise", Antsoaingo antzokian emanen baitute filmaren 30. urtemuga ospatzeko. Ikusi beharrekoa!




## SERVICIO IGUALDAD

### 25 DE NOVIEMBRE, DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES

Con motivo de la campaña del 25N, este año hemos programado diversas actividades para prevenir y concienciar sobre la violencia hacia las mujeres, como son el monólogo "No solo duelen los golpes" con Pamela Palenciano, el Escape Room por la igualdad en Harrobi o "80 amandre", con Dorleta Kortazar.

Además, se han realizado los dos primeros pases del ciclo de cine "La justicia de las vivas", pero queda la última sesión: "Thelma y Louise", que el 15 de diciembre a las 19h celebran en el teatro de Ansoáin sus 30 años de película. ¡No te la pierdas!



*"No solo duelen los golpes" emanaldia, Ochoa de Olza Institutuko DBHko 4. mailako ikasleekin.*
*Pase "No solo duelen los golpes" con 4º de la ESO del instituto Ochoa de Olza.*

**ANTZERKIA. EUSKARAREN EGUNA - EUSKARAZ**
**TEATRO DÍA DEL EUSKERA - EN EUSKERA**

OSTIRALA **10** VIERNES

Antsoaingo Antzokia - Teatro Ansoáin
18:00 h. (75 min)

TDIFERENCIA. EUSKARABIDEA

5 urtetik aurrera
A partir de 5 años



## KASILDA KARTOI ARTEAN

Ez ezazu egin onena ez bazara,porrota da arrakasta ez dena; ia ez da existitzen, ongi dago edo gaizki; barregarri geratuko zara, ez duzu dantzari gorputzik, ez zara inoiz benetako abeslaria izango, arreta ikasketetan jarri,probetxuzko zerbait ikasi... Ez dute lortuko Kasildak sortzeari, amesteari, hazteari, ahalduntzeari uztea. Ez dio ipurdia bere bizitzan merezi duen lekua hartzeko bezain gogor mugitzeari utziko.

No lo hagas si no eres la mejor, lo que no es un éxito en un fracaso, el casi no existe sale bien o no sale, harás el ridículo, no tienes cuerpo de bailarina, nunca serás una cantante de verdad, céntrate en los estudios, estudia algo de provecho, acabarás viviendo entre cartones... no harán que Casilda deje de crear, soñar, crecer, empoderarse y mover el culo tan fuerte como para hacerse el hueco que se merece, en su propia vida.

**DOAKOA. Gonbidapenak www.ansoain,es edo takilan aretoa bete arte / GRATUITA. Invitaciones en www.ansoain.es o taquillla hasta completar aforo**

**OBJEKTUEN ANTZERKIA. GAZTELANIAZ**
**TEATRO DE OBJETOS. EN CASTELLANO**

IGANDEA **12** DOMINGO

Antsoaingo Antzokia - Teatro Ansoáin
18:00 h. (60 min)

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN

Jende guztiarentzat
Todos los públicos



## REMIGIA. LA REINA DEL ARGA

ADI, ADI, KONTRARIORIK GABEKO FUNANBULISTA! Hemen, Iruñeko bi espazio publikori izena ematen dien historiako pertsona bakarra aurkezten da, Iruñeko katu guztiak bera bezala deitu ziren, eta oraindik gure adineko baten oroimenean edo edozein artxiboren izkinaren batean, agian bizirik jarraituko du.

EXTRA, EXTRA FUNÁMBULA SIN RIVAL! Aquí se presenta a la única persona de la historia que da nombre a dos espacios públicos en Pamplona, también por su culpa todas las gatas pamplonesas se llamaron como ella y aún en la memoria de alguno de nuestros mayores o en alguna esquina de cualquier archivo, tal vez continúe viva.

**PRECIO / PREZIOA 4,00 €**

ZINE FORUM ZIKLOA "BIZIRIK DAUDEN EMAKUMEEN JUSTIZIA". GAZTELANIAZ
CICLO DE CINE FÓRUM "LA JUSTICIA DE LAS VIVAS". EN CASTELLANO

ASTEAZKENA **15** MIÉRCOLES

Antsoaingo Antzokia - Teatro Ansoáin
19:00 h. (90 min)

Gazte eta helduentzat
Juvenil-adulto




## THELMA Y LOUIS

Thelma Dickinson, etxekoandrea, bizitza huts eta interesik gabekoa du haur bat bezala tratatzen duen senar nazkagarri baten ondoan. Louise Sawyerrek kafetegi bateko zerbitzari gisa lan egiten du eta Jimmy mutil laguna, musikaria, berarekin ezkontzea amesten du. Asteburu batean elkarrekin bidaia bat egitea erabakitzen dute Louiseren autoan, beren bizitzaren errutinatik eta frustrazio guztietatik aldentzeko. Hala ere, bere ihesaldia, dibertigarria eta, batez ere, askatzailea izango zela zirudiena, gertakari dramatikoz beteriko esperientzia izango da azkenean.

Thelma Dickinson, un ama de casa de vida vacía y anodina, está casada con un cretino detestable que la trata como a una niña. Por su parte, Louise Sawyer trabaja como camarera en una cafetería y sueña con que su novio Jimmy, que es músico, se case con ella. Un fin de semana deciden hacer un viaje juntas en el coche de Louise para alejarse de la rutina de sus vidas y de todas sus frustraciones. Sin embargo, su escapada, que prometía ser divertida y, sobre todo, liberadora, acaba siendo una experiencia llena de episodios dramáticos.

**DOAN - GRATUITA**

HITZALDIA. GAZTELANIAZ - CHARLA. EN CASTELLANO

ASTEAZKENA **15** MIÉRCOLES

Loza Kulturgunea (ludoteka) - 17:00 h.
Espacio Cultural Loza (ludoteca) - 17:00 h.

AMAGINTZA

4 urtetik aurrera
A partir de 4 años



## LACTANCIA MATERNA, LO QUE NUNCA NOS CONTARON

**Antolatzailea:** Errespetuzko hazieraren aldeko Antsoaingo Elkartea. Informazioa: 660 135 957. Kobid-19 neurriak.

**Organiza:** Asociación de crianza respetuosa Izan de Ansoáin. Información: 660 135 957. Medidas covid-19



KONTZERTUA - CONCIERTO

LARUNBATA **18** SÁBADO

Antsoaingo Antzokia - Teatro Ansoáin
19:00 h. (90 min)

ROBERTO URRUTIA

Gazte eta helduentzat
Juvenil-adulto




## VIVIR LA VIDA

2021 honetan Roberto Urrutia itzuliko da, ohituta gaituemoduan, ikuskizun handia eta inolako murrizketarik gabe. Horregatik, genero guztietako artistez betetako kontzertua aurkezten digu: mariatxia, lirikoa, euskalduna, joteroa, latinoa... Ahots, instrumentu eta dantza maila handiko artistak.

Este 2021 Roberto Urrutia vuelve a la carga, tal y como nos tiene acostumbrados y el espectáculo al máximo y sin recortes de ningún tipo. Por ello, nos presenta un concierto lleno de artistas de todos los géneros: mariachi, lírico, euskaldun, jotero, latino... Artistas de gran vocal, instrumental y baile.

**PRECIO / PREZIOA 10,00 €**

CARITAS ANTSOAIN-en ETA EM NAFARROAREN ALDEKO KONTZERTUA
CONCIERTO BENÉFICO A FAVOR DE CÁRITAS ANSOÁIN Y EM NAVARRA

IGANDEA **19** DOMINGO

Antsoaingo Antzokia - Teatro Ansoáin
18:00 h. (120 min)

Gazte eta helduentzat / Juvenil-adulto



## CORO EZKABA ANSOÁIN, RONDALLA YOAR, GRUPO TAMARINDO, RAÍCES Y BROTES

CÁRITAS ANSOAIN eta EM Nafarroa taldeentzako dirua biltzeko helburuarekin antolatu du kontzertu hau Antsoaingo Ezkaba jubilatuen elkarteak. Ezkaba Abesbatza, Rondalla Yoar, Tamarindo eta Raíces y Brotes taldeek parte hartuko dute.

La Asociación de Jubilados y Jubiladas Ezkaba de Ansoáin ha organizado este concierto benéfico con el fin de recaudar fondos para CARITAS ANSOÁIN y EM Navarra. Participarán, Coral Ezkaba, Rondalla Yoar y los grupos Tamarindo y Raíces y Brotes.

**PRECIO / PREZIOA 5,00 €**



IPUIN-KONTALARIA. EUSKARAZ - CUENTA CUENTOS. EN EUSKERA

ASTEAZKENA **22** MIÉRCOLES

Liburutegia
Biblioteca

## SORGINEN HITZAK

BIRJIÑE ALBIRA

17.30ean, 3 eta 5 urte bitartekoentzat
18.15ean, 6 eta 12 urte bitartekoentzat

17:30 De 3 a 5 años
18:15 De 6 a 12 años

**DOAKO SARRERA - ENTRADA LIBRE**



## IGANDEA 19 DOMINGO

### MARIDOMINGI EGUNA

**11:00- 14:30**
**ARTISAU AZOKA / FERIA DE ARTESANÍA.** Lapurbide Plaza - Plaza Lapurbide

**12:00-13:30**
**KARRIKA DANTZA.** Tiriki Trauki fanfarrea. Nafarroako Dantzarien Biltzarra
Udaletxe Plaza - Plaza del ayuntamiento

**16:30**
Zelaia parkean **GUTUN BILKETA**. Antsoain zaharraren elizaraino igoko da
**RECOGIDA DE CARTAS** en el parque Zelaia. Se subirá hasta la iglesia del pueblo viejo

**18:00**
**TXOKOLATADA** herrikoia Ezkabako aterpean / **TXOKOLATADA** popular en el cubierto de Ezkaba

**Kultur Koordinakundea / Coordinadora de Cultura**

## ASTEAZKENA 22 MIÉRCOLES

Patioa - Patio / 17:00 h.



### OLENTZERO JAIA
### EZKABA IKASTETXEA

### FIESTA DEL OLENTZERO
### COLEGIO EZKABA

## OSTIRALA 24 VIERNES

Ingurabideko zubia (igerilekuen ondoan)
Puente variante (junto a las piscinas) • 18:00 h.

### ONGIETORRIA OLENTZERORI
### BIENVENIDA AL OLENTZERO

Gabon gauean, pertsonaia bitxi bat jendartean sartuko da. OLENTZERO da, urtean behin mendietatik Euskal Herriko herrietara EGUBERRIAK ospatzera jaisten den ikazkina. Hainbat herritan, aurpegia belzturik tximiniatik jaisten zen begi gorriko eta itxura zatarreko erraldoia zen Olentzero; eta haur bihurriak izutzeko erabiltzen zen Olentzeroren pertsonaia. Gaur, berriz, haurrek lagun zintzotzat hartzen dute Olentzero, eta lagun goxo horrek haurrak maite ditu, eta opariak ekartzen dizkie Gabon gauean.

En la noche de Nochebuena un curioso personaje se dispone a irrumpir entre la gente. Se trata de OLENTZERO, el carbonero de las montañas que una vez al año baja a las poblaciones de Euskal Herria para celebrar la NAVIDAD. Olentzero era en muchos pueblos un gigante que bajaba de la chimenea con la cara tiznada, los ojos rojos y el aspecto fiero. Con él se amenazaba a los niños traviesos. Hoy, los pequeños le consideran bueno, su amigo que  trae regalos en la noche de Nochebuena.

ZIRKUA. GAZTELANIAZ - CIRCO. EN CASTELLANO

ASTEAZKENA **29** MIÉRCOLES

Antsoaingo Antzokia - Teatro Ansoáin
19:00 h. (70 min)

Publiko osoarentzat
Todos los públicos




## MARA MARA CABARET - KABARETA

Neguko zirkuak Gabonetako egutegien ezinbesteko hitzordu bihurtu dira Europa osoko hainbat hirietan. Ohitura honi jarraituz, El Punto Gunea eta La Trapecionistaren proiektua den Cabaret Mara Mara iritsiko da Antsoainera.  Gazteei eta familiei zuzendua, bertako, nazioko eta nazioarteko hainbat zirku saioz sortutako ekitaldia izango dugu.

Siguiendo la tradición de diferentes ciudades de toda Europa donde los circos de invierno se han convertido en cita indispensable de los calendarios navideños, llega a el Cabaret Mara Mara, un proyecto de El Punto Gunea y La Trapecionista, dirigido a jóvenes y público familiar. Un evento creado por diferentes números de circo de procedencia local, nacional e internacional.

**PRECIO / PREZIOA 5,00 €**

# INFORMAZIO INTERESGARRIA
# INFORMACION DE INTERÉS

## SARREREN SALMENTA – VENTA DE ENTRADAS

**ANTZOKIKO LEIHATILAN**

Ikuskizunaren hasiera baino ordu eta erdi lehenago hasita.

012 TELEFONOAN (Nafarroatik kanpo 948 012 012).

Sarrerak antzokiko leihatilan hartuko dira ikuskizunaren hasiera baino ordu eta erdi lehenago hasita.

INTERNET www.ansoain.es SARREREN SALMENTA.

Internet bidez egindako erosketaren egiaztagiria ekartzen baduzu, zuzenean aretora sartu zaitezke.

Ez da aldaketarik edo itzultzerik onartzen. Soilik ikuskizuna bertan behera utziz gero.

**TAQUILLA DEL TEATRO.**

Desde una hora y media antes del comienzo de cada espectáculo.

TELEFONO 012 (Desde fuera de Navarra 948 012 012).

Las entradas se recogerán en la taquilla del teatro desde una hora y media antes del comienzo del espectáculo.

INTERNET www.ansoain.es VENTA DE ENTRADAS.

Con el justificante de compra por internet puedes acceder directamente a la sala.

No se admiten cambios ni devoluciones, excepto por cancelación de un espectáculo.

Inork entzumen tresna erabili nahi badu Antzokian ematen diren antzezpenetarako, erreserba egin beharko du Kultura Zerbitzura deituta (948 13 34 10), cultura@ansoain.es helbidera idatzita, edo, antzezpenaren egunean bertan, antzokiko langileei eskatuta.

Las personas que deseen utilizar alguno de los equipos de audición en las representaciones programadas en el Teatro, lo podrán reservar llamando por teléfono al servicio de cultura (948 13 34 10), escribiendo a cultura@ansoain.es o  solicitarlo al personal de sala el mismo día de la función.



# ENERO URTARRILA

MAGIA. GAZTELERAZ – MAGIA. EN CASTELLANO

IGANDEA **2** DOMINGO

Antsoaingo Antzokia - Teatro Ansoáin
18:00 h. (70 min)

SUN MAGOA - MAGO SUN

Publiko osoarentzat
Todos los públicos



## 1, 2, 3 MAGIA!

Magoak bere unibertso magikoan sartzen gaituen ikuskizun harrigarria eta berritzailea. Ikuskizunik gaurkotuena eta liluragarriena, agerpenak, desagerpenak, ezinezko lebitazioak eta magia interaktiboa dituena, non publikoa den protagonista.

Un sorprendente y novedoso espectáculo, donde el mago nos introduce en su gran universo mágico. El show más actual y fascinante con apariciones, desapariciones, levitaciones imposibles y magia interactiva en la que el público es el protagonista.

**PRECIO / PREZIOA 4,00 €**

ASTEAZKENA **5** MIÉRCOLES

18:00 h.



## ERREGE MAGOEN KABALKADA
## CABALGATA DE LOS REYES MAGOS

Udaletxetik abiatuko da. Euria ari badu, jarduerak ikastetxeko jolastokian izanen dira
Desde el Ayuntamiento. En caso de lluvia las actividades se trasladarán al patio del Colegio


CENTRO CLÍNICO VETERINARIO
**ANSOAIN**
¡Os deseamos Feliz Navidad!

**CONSULTA Y CLÍNICA DE PEQUEÑOS ANIMALES**
**TIENDA ESPECIALIZADA**
**PELUQUERÍA CANINA Y FELINA**



Padre Adoáin, 223
31015 Pamplona
Tel.: 948 130 007

URGENCIAS
24 HORAS
680 144 441

**HORARIO**
Lunes a Viernes 9,30 a 21,00 h.
Sábados 9,30 a 13,00 h.

idaki

# ZURE KIROL GUZTIA ETXEKO ATEAN

# TODO TU DEPORTE EN LA PUERTA DE TU CASA






## JOSEBA

**ASTELEHENA**
**LUNES**
9:15-12:15
16:00-22:00

**ASTEARTEA eta OSTEGUNA**
**MARTES y JUEVES**
7:45-13:45

**ASTEAZKENA**
**MIÉRCOLES**
14:30-21:30

**OSTIRALA**
**VIERNES**
9:15-13:45



## MAITE

**ASTELEHENA**
**LUNES**
16:30-17:30
20:30-21:30

**ASTEARTEA**
**MARTES**
16:30-18:30

**ASTEAZKENA eta OSTIRALA**
**MIÉRCOLES y VIERNES**
11:30-13:30
14:30-21:30



## DAVID

**ASTEARTEA eta OSTEGUNA**
**MARTES y JUEVES**
17:00-17:25
20:20-21:00

**Jarduerak streaming bidez**
Bat egin IDAKI TBrekin, eta erreserbatu orduak aplikazioan

**Actividades vía streaming**
Súmate a IDAKI TV a través de la aplicación de reserva de hora

* Azaroan aretoko teknikoaren ordutegia
* Horario personal técnico de sala en noviemb

+info

948 14 07 82 - **www.idaki.org**

ANTSOAINGO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ANSOÁIN